


KANPO MERKATARITZA

EAEtik atzerrira esportatutakoak behera egin zuen lehen hiruhilekoan

Esportazio guztien eta ez-energetikoen bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak



2019ko lehen hiruhilekoan, atzerriko esportatutako ondasunen gutzitzea %3,8 gutxitu zen, azken bi urteetako lehen jaitsiera delarik. Erregai mineralen beherakada bortitzak (%-31,2) azaltzen du bilakaera hori, Petronorrek aurtengo lehen hiruhilekoaren bi hilekotan egin zuen geldialdiak baldintzatuta. Energiaren atala kenduta, jaitsiera %1,1era mugatzen da. Metal arrunten eta beren manufakturen bilakaera txarra eta garraio materialarena daude murrizketa horren atzean.

Esportazio ez-energetikoen bilakaera

Milioi euro



Hala eta guztiz ere, energiaz bestelako esportazioen balioa ia 5.779 milioi euroetara iritsi zen, gaur arte kontabilizatu diren kopuruen artean hirugarren altuena baita, hain zuzen ere, 2018ko lehen sei hilekoan jaso zirenen ondoren. Izan ere, 2018ko lehen sei hilekoetan emaitza apartak lortu ziren ekipamendurako ondasunen eta metal arrunten eta beren manufakturen salmentan. Zehazkiago, 2018ko lehen hiruhilekoan, garraio materialak salmenta guztien %30,6 bildu zuen, berriro eskuratu ez den kopurua delarik.

ESPORTAZIO GUZTIEN HELBURUA

	2017	2018	2018				2019	
			I	II	III	IV	I	I mila €
GUZTIRA	11,5	6,8	10,9	6,1	6,9	3,7	-3,8	6.177.603
ELGE	11,9	7,9	12,0	7,1	6,2	6,3	-3,2	5.151.750
Europar Batasuna	10,9	7,7	8,5	7,8	8,2	6,3	1,2	4.252.064
Frantzia	4,0	5,2	5,2	7,0	5,3	3,4	3,0	996.027
Alemania	13,0	1,6	12,4	6,0	-4,1	-7,6	-6,5	963.869
Erresuma Batua	16,1	14,5	16,0	1,8	20,8	20,6	14,6	504.498
Italia	6,0	13,8	12,3	21,7	15,7	6,2	-6,0	309.302
AEB	18,4	16,4	47,1	17,7	-0,8	9,3	-14,0	461.201
ELGETik kanpokoak	10,1	2,2	5,6	1,8	10,0	-7,7	-6,5	1.025.853

Esportazioen jaitsiera herrialde garatuetan zein garapen bidean dauden ekonomietan gauzatu zen. Salbuespena Europar Batasunera bideratutako salmentak izan ziren, eremu positiboari eustea lortu zutelako. Makinen eta tresnen salmenten bizitasunak azaltzen du Frantziara esportatutakoaren gehikuntza. Bitxia den arren, atal hori izan zen merkatu britainiarrean igo ez zen bakarra. Izan ere, gainontzeko talde guztiek hazkunde garrantzitsuak lortu zituzten, baita garraio materialak ere. Aurrekoak pentsarazten du Brexit hurbil egoteak eragile britainiarrak animatu dituela erosketak aurreratzera.

Inportazioei dagokienez, beren bilakaera nabarmen hobea izan zen eta bai inportazioen guztizkoak (%5,1) bai energiaz bestelakoak (%8,1) gora egin zuten. Erosketak eremu handi guztietan handitu ziren eta bakarrik produktu mineralen eta garraio materialaren inportazioak gutxitu ziren. Aurreko guztiaren ondorioz, lehen hiruhilekoaren saldo garbia 1.018 milioi euroetatik gora kokatu zen. Eraitza hori 2018ko lehen laurdenean eskuratu zena baino 494,3 milioi euro txikiagoa izan zen, baina estaldura tasa (%119,7) EAeren aldekoa izaten jarraitzea ahalbidetu zuen.

INPORTAZIO GUZTIEN JATORRIA

	2017	2018	2018				2019	
			I	II	III	IV	I	I mila €
GUZTIRA	19,9	8,8	2,9	8,7	13,1	10,6	5,1	5.159.177
ELGE	17,1	4,4	1,5	4,6	4,9	6,7	1,2	3.496.976
Europar Batasuna	13,1	-0,8	-6,0	2,7	3,4	-2,1	3,3	2.815.519
Frantzia	12,9	5,6	11,9	14,5	0,6	-3,2	-1,3	494.946
Alemania	6,7	4,9	4,8	11,5	4,3	-0,5	6,3	798.403
Erresuma Batua	60,6	-43,0	-57,0	-42,2	2,6	-45,6	-28,4	189.451
Italia	8,2	6,9	11,9	9,0	10,4	-2,5	-2,0	243.479
AEB	19,5	13,5	0,8	-30,4	25,8	51,1	85,6	181.267
ELGETik kanpokoak	26,5	18,4	6,4	17,0	30,6	19,3	14,3	1.662.201